

TOLOSA ▶

Inauteriak  
urte osoa  
gogoan

Iñaki Goikoetxea  
inauterizalea ▶ 8



## Haur txikien danbor festak bete zituen Tolosako kaleak atzo

**ANTOLAKETA** ▶ Aiz-Orratz elkarteak antolatu zuen Haur Danborrada 29. urtez

**PARTAIDEAK** ▶ Danborrariak, kosakoak, txantxoak, kantinerak, akordeoilariak... izan ziren ▶ 4-5



Haurrek ederki pasatu zuten arratsalden danborra joz Aiz-Orratz txarangaren doinuekin. NOELIA LATABURU

TOLOSA ▶

Gure Txokoa  
eta  
Txinparta,  
75. urte

Ekitaldi ugari  
prestatu dituzte urte  
osoan zehar ▶ 6-7

TOLOSA ▶

Ezkontza  
eroa  
izan zen  
Leidorren ▶ 9

### BIHAR HITZA IZANGO DA KALEAN

Normalean astelehenetan ez da HITZA izaten, baina bihar bai izango da. Tolosako Inauteriak jaiek direnez, jai hauen informazio zabala emateko gaur lan egingo du erredakzio taldeak eta bihar egunkaria kaleratuko da. Beraz, zer ikusi izango duzue bihar.

Behera galtzak!!!

Garbera Merkatal Gunea  
Donostia

NI EZ NAIZ  
INOZOA

Media Markt

**ZABALA**

**KAFEAK**

**ONDO PASA  
INAUTERIETAN!**

Nafarroa etorbidea, 2 TOLOSA  
Nagusi enparantza, 2 ORDIZIA

Tlf.: 943 65 47 95  
Tlf.: 943 88 29 88

**AITZOL**  
UDAL EUSKALTEGIA

INAUTERIETAN TXANTXO ETA  
EUSKALTEGIAN TXINTXO

  
TOLOSAKO UDALA  
EUSKARA BATZORDEA



## Arco Iris txarangaren arrakasta handia Donostian

**ARGAZKI ZAHARRA** ▶ Tolosako Inauterietako txarangek kanpora eraman izan dute bere musika eta umorea frankotan. Alcoyano izango zen gehien ibilitakoa. Aurreko mendeko 60. hamarkada hasieran Donostiako CATek Arco Iris kontratatu zuen Mendekoste Desfilerako, karrozen ondoan aritzeko. Alde

Zaharreko kaleak «leporaino bete» omen zituzten ez zeudelako ohituta horrelakorik ikusten. Gaztelupe elkartean «babestu» behar izan zuten. Jende uholdearen artean, autobusera itzultzeko udaltzainen laguntza behar izan zuten. Argazkian, Alderdi Ederren, Miguel Mari Iraola zuzendari dela. 'ARCO IRIS TXARANGA 1947-97'

MIGUEL ANGEL BERMUDEZ ▶ INAUTERIZALEA

## «Edozein mozorro da ona, guztiekin pasatzen delako ondo»

**Iratxe Etxebeste.** Aurtengoetan ez du mozorrorik kalera aterako. Inauterietan kanpora joatea erabaki duelako. Hala eta guztiz ere, ez du zalantzarik izan Hitzari erantzuteko. Inauteriak, izan ere, bihotzean ditu beti Miguel Angel Bermudezek. **Txikitatik ezagutzen dituzu Inauteriak. Nola oroitzen dituzu?**

Tolosako Alde Zaharrean jaioa naiz, eta oso barrutik sentitu izan ditut Inauteriak beti; ez da kanpoaldean bizitzea bezala. Umetan txarangearekin ibiltzen ginen hara eta hona saltoka, edozein mozorro edo txilaba jantzita. Etxe batetik bestera, balkoitik balkoira serpentinak jaurtitzen ere aritzen ginen. Oso ondo pasatzen genuen.

**Gerora, karrozak eta konpartsak ere egin izan dituzu. Gogoan duzu haietakoren bat?** 1965. urtetik 1972. urtera izan zen hori, bitarte horretan. Koadrilan ateratzen ginen, baina ezkondu ostean emaztearekin atera izan naiz beti. Motokarro

batean lau lagunek irten genuen lehendabizikoz, Beatles musika taldeko mozorrotuta. Sardina latekin egin genuen batera, eta tokadiskoa eta guzti jarri genion konpartsiari. Lau trapu eta lau xoxekin nahikoa genuen.

**Azken urteotan bakarrik edo emaztearekin irteten zara, ezta?**

Dianan, esaterako, bakarrik irteten naiz. Urteren batean asatoarekin batera aritu izan naiz esnezale gisa, eta paper horretan behar bezala sartzeko, jendeari esnea saltzen jardundakoa naiz. Arrain-saltzaile mozorroa ere bizpahirutan jantzi dut honezker.

**Inauteriak zer dira zuretzat?** Urte guztian egin ezin direnak egiteko hiru egun. Arazoak ahazten ditugu hiru egun horietan, eta ondo pasatzeko prest izaten gara.

**Bereziki gogoan duzun mozorrorik baduzu?** Mozorro guztiak dira onak, edozeinekin ondo pasatzen



LEIRE MONTES

### TRAGO BATEAN ▶

**Festa bat?** Alde Zaharreko garai bateko sanferminak. Uztailaren 6an eta 7an izaten ziren. Gaur egun ez dira ospatzen, tamalez.

**Inauterietako une bat?** As-telenita eta Asteartita, ez delako Zaldunitan bezainbeste kanpotar izaten.

**Hausterre Egunean zer, la-saitasuna ala tristura?** Atsedean hartzeko eguna da. Zeure buruarekin gustura egoten zara, gainera, ondo pasatu duzulako aurretik.

duzulako; aukeratutako mozorro horren barruan sartzea da gakoa. Hala ere, batzuk modu berezian gogoratzen ditut: uholdeak izan ziren urtean *Merkealdia uholdeengatik* mozorroa aukeratu nuen, eta jantziak-eta salduz aritu nintzen. Beste batean, Goyaren *La maja desnuda*-z atera nintzen.

**Bizpahiru hitz Inauteriak nolakoak diren adierazteko?** Ilusioa, poza eta umorea. Jantzen duzun mozorroa jantzen duzula, urduri egoten zara etxetik atera eta kaleko giroan sartu arte; urduritasun hori polita ere bada, hala ere. ◀

### DATUA ▶

**116** karroza eta konpartsa daude lehiaketan izena emanda: 14 karroza, 15 plataformadun konpartsa eta 87 konpartsa. Lehiaketan izena eman gabeko beste hainbat konpartsa eta taldetxo ere izango da, noski. Hiru egun hauetan ikus ahal izango ditugu denak kalean.

### DOINU EGILEAK ▶



Juan Colmenero. HITZA

Nork konposatu ditu Inauteri doinuak? Bada, errepertorio tradizionalakoak auskalo! Kanpotik etorri eta bertarautakoak dira gehienak. Tarte bat —*Polka*— Straussenena. *Galtzaundi* Jose Rogelen *El ultimo figurin* obrako zati bat da. Elkarteen doinuak konposatzaile tolosarrenak dira. Juan Colmenerok egin zituen asko —*Danborrada*, *Arco iris*, *Veleta*...— eta beste hauek ere bai: Eustakio Garate, Jose Tarragona, Ignacio Mokoroa, Antxon de Pedro, Justo Saizar, Ignacio Bereziartua, Jose Maria Molina, Guillermo Lizaso, Markos Zubeldia, Florentino Peñafiel, Miguel Martinez, Tomas Arnal, Tomas Arrizibita, Luis Angel Tarragona, Carlos Garcia, Jose Luis Ancin...

### KANTAK ▶

Jeiki guztiok goiz kantaren soñua eta ez galdu ondoren datorrena danbolin otsak eta txaranga alaiak egin dezaten gure gozamen. Tolosar legez edari ta janaz berdinu zugun ondoren barrena ta zabaldu gure umore ona jun dedin pozik onuntz datorrena.

Jeiki jeiki oi ortatik gaur tolosarrak Inauteriak beti! alaitzen gaitu guztiz jeiki jeiki oi ortatik gaur tolosarrak guazen festara danok goizetik

'UXOLA'



HISTORIA ▶

# Inauteri garaian ez da dena festa eta alaitasuna, samina eta gertaera triste ugari ere izan da maiz

Atentatuak eta atxiloketak ere izan dira azken azken urteotan jai egun hauetan

J. SAIZAR

Inauteriak festa, musika, dantza, alaitasuna, parranda eta zorionarekin lotuta joaten dira, baina Tolosako Inauterien inguruan azken urteotan zoritxarreko gertaerak ere izan dira. Horieta batzuk bildu ditugu oraingoan.

**1983: Hildako bat Zaldunita-bezperako danborrada garaian.** Otsailaren 12an, Zaldunita bezperan, danborradaren garaian ETA (pm) komando ba-

tek atentatu bat egin zuen Tolosako Andia kalean. Patricia Yanillas eta bere senarra Jose Luis Alonsoren aurkako eraso izan zen. Patricia Yanillas hilik suertatu zen.

**1987: Patxi Arratibelen hilketak Asteartitan txaranga zela.** Otsailaren 12an, Asteartita, ETAK Patxi Arratibel enpresari tolosarra tiroz hil zuen Errementari kalean, berak zuzentzen zuen Kabila txarangarekin hamaiketako egin ondoren, ondoko jatetxe batetik atera-

tzen ari zen unean. Atentatuari erantzuteko txarangen kontzentrazioa izan zen eguerdian Trianguloan.

**2001: Eskualdeko bi langile-ren hilketak Martutenen, Ostegun Gizenean.** Otsailaren 22an, Ostegun Gizena, ETAK Donostiako Martutene auzoan jarritako bonba-auto batez Elektra enpresako bi langile hil zituen: Josu Leonet tolosarra eta Jose Angel Santos ikaztegiatarra. Atentatuaren helburua Iñaki Dubrueil zinegotzi

sozialista zen. Leherketak bera eta beste hiru langile larri zauritu zituen, tartean Ignacio Urrestarazu Urkola tolosarra. Erreakzio ugari izan ziren. Inauterien hasiera ere kolokan izan zen. Ostiral Meheko ekitaldiak bertan behera gelditu ziren.

**2003: 'Egunkaria'-ren itxiera eta atxiloketak.** Inauteriak baino egun batzuk lehenago, otsailaren 20an, Espainiako Auzitegiko Juan del Olmo epailearen aginduz, Guardia Zibi-



Patxi Arratibel. HITZA

lak *Euskaldunon Egunkaria* itxi eta hamar lagun atxilotu zituen, tartean Martxelo Otamendi tolosarra —Egunkariako zuzendaria—, «ETArekin lotura izatea» leporatuta. Handik bost egunera aske utzi zuten Otamendi fiantzapean.

TXARANGAK ▶

# Musikaren kaosaren barruan, arautegia dute txarangek

Inauteri piezak bakarrik jo ditzakete, bestela zigorra jasotzen dute

JOXEMI SAIZAR

Tolosako Inauteriaren arima eta bihotza dira txarangek. Inauterietako erreperitorio tradizionalarekin eta elkarrekin piezekin giro aparta sortzen dute egun hauetan biltzen diren herritar eta kanpotarren artean. Inauteria definizioz den desorden, kaos, parranda eta transgresioaren barruan, txaranga hauek bete beharreko bere arautegia dute, Festa Batzordean adostuta. Irteera orduak, kalejiretan eta zezenetan jo ditzaketen eta jo ezin ditzaketen piezak, musikari kopurua, zigorrak eta bestelakoak zehazten dira arautegi horretan.

Txaranga ofizialak eta ez ofizialak bereiztu behar dira hasiteko. Ofizialak dira zezenetarako joan-etorria, zezenak eta dantzaldia alaitu behar dute. Hamahiru musikari izan behar dute, gutxienez. Egunero hirur dira. Aurtien Zaldunitan, Alcoyano, Aiz-Orratz eta Sukal-



Arau batzuk dituzte txarangek; argazkian, San Esteban txaranga Berazubiko zubian jotzen. J. SAIZAR

de, Astelenitan Tolosano, Poca Tripa eta Arco Iris, eta Asteartitan San Esteban, Kabila eta Urdiña Txiki izango dira.

Txaranga guztien irteera elkartetik 9:00etan —gosalterza geratuz— edo 10:00etan —geratu gabe— izango da —Astea-

titan 8:00etan, Pattar zezenara joateko *Diana* joz— eta 13:30ak arte aritu behar dute —ofizialek 13:00ak arte—. Zezenetako kalejira egitera doazenean, elkartetik udalera txaranga piezak jo behar dute eta handik zezen-pla-

zara eta zezen-plaza barruko bueltan 7 eta 14 joko dituzte. Ofizialak sartuko dira lehendabizi eta ondoren besteak, besteak 150 euroko zigorra dute. Lehendakariak adierazitakoan emango dio irteera zezenari lehendakariaren parean koka-

tzen den txaranga ofizialak eta ondoren Udal Txistulari Bاندak bere erreperitorioko pieza bat joko du. Txistularien ondoren, txaranga ofizialak *Iriyarena* jo behar du eta ondoren beste txarangek nahi duten Inauterietako piezak. Zezen arteko etenaldietan elkarrekin piezak jo behar dituzte. Lehendakariak zezen bat gehiago ateratzen badu, txaranga azkeneko zezenaren bukaera arte geldituko dira. Asteartitan, bosgarren zezena sartzen denean, *San Joan zortzikoa* jo behar dute.

Zezenen irteerako kalejiran Inauterietako edozein pieza jo dezakete. Hiru ofizialak joango dira aurretik. Besteek ere egin dezakete kalejira, atzetik. Korazonista plazaraino elkarteko pieza jo dezakete. Dantzaldia plaza Berrian izaten da —Berdura plazan eurria bada—. Dantzaldian ordubeteko txanda du txaranga bakoitzak, 19:00etatik 22:00etara. Azken txanda duenak Gernikako Arbola eta Alde Zaharreko tartea alaitu behar du aurretik. Inauterietako eta elkarrekin piezak jo ditzakete. Besteak debekatuta daude. Amaitu ondoren, elkarrekin pieza jo behar dute elkarrekin.

Zezen-plazara sartzen ez diren txarangek inguruan jo behar dute. Futbol partidura joatea debekatuta daukate.

www.saldias-miguel.com  
saldias@saldias-miguel.com

**Saldías Miguel**  
Nº D.G.S.J.1759

ASEGURUETAKO ARTEKARITZA

**Iraxo**  
taberna

Ondo pasa inauteriak!

P. Gorosabel, 29 • TOLOSA • Telf.: 943 675237

**KUPELA**  
taberna

Etorri INAUTERIAK gurekin ospatzera!

Pintxoak ogitartekoak eta giro euskalduna

Plaza berria, z/g • TOLOSA  
Tel.: 943 67 20 70



HAUR DANBORRADA ▶

# Danbor txikien oihartzuna

Gaztetxoak geltokitik abiatu ziren eta Tolosako kaleak alaitu zituzten bere danbor soinuekin; kantinerak, danborrariak, errementariak, txantxoak, kosakoak eta akordeoijoleak izan ziren



**Trianguloa.** Danborradan arte hartu zuten ume guztiak, Kultur Etxearen aurrean beren emanaldia egin zuten elkarrekin. Batzuk danborra jo, besteek soinua, eta besteek dantzatu, begira zegoen ikusle mordoaren gustuak aseztu eta hamaika argazkilariren izar izanez. NOELIA LATABURU



**Kosakoak.** Neskato osako hauek ibilbide guztian zehar dantzari ibili ziren, panderoak gora eta behera astinduz. NOELIA LATABURU



**Danborrariak.** Intentzio eta gogo guztiarekin aritu ziren neska-mutiko guztiak, gidariaren esanera erritmoa zaindiz. NOELIA LATABURU

NOELIA LATABURU  
JAIONE ASTIBIA

Atzokoan herriko gaztetxoek bere egun berezia bizitu zuten. Makilak eskutan, gogor astindu zituzten danborrak haurtxoek, senide eta lagunak begiradapean. 29. urtez Aiz-Orratz elkarteak haur danborrada antolatu zuen.

Haurrak talde ezberdinetan banatu ziren. Desfilearen buruan kantinerak zihoazen errenkada luzea irekiz, atzetik danborreroak zituztela; jarraian errementariak zihoazen, mantala eta guzti; ondoren txantxoak abiatu ziren, kosakoak atzean zituztela. Danborra-

**KARMELE**  
ileapaindegia eta gaiak  
**ONDO PASA INAUTERIETAN!**  
San Frantzisko, 25 • TOLOSA • Tel.: 943 65 26 02

**ELA** Ondo pasa  
Inauteriak!  
EUSKAL SINDIKATUA

HERNIALDE  
JAIETXEA  
heix garido  
gaitzari loskurain  
**Ondo pasa  
Inauteriak!**  
martin jose iraila, 10 • tolosa  
tel.: 943 67 56 54

"Xirimiri" **Gora inauteriak!**  
Txokolategia  
Errementari kalea, 40  
20400 Tolosa  
Telef. 943 67 52 23

**BEGIRISTAIN**  
Tolosako sagardotegia  
tel.: 943 65 28 37 / 607 36 57 43 • Iturriotz baserria 20267 Ikaztegieta

- Afariak: astelehenetik larunbatera
- Bazkariak: osteguna, ostirala eta larunbata
- Inauterietan: astelehena, asteartea eta asteazkenean bazkariak emango dira



**Balkoia.** Elkarte guztietako ordezkari modura, kantinera guztiak Kultur Etxeko balkoi nagusira igo ziren, beren ikurrak airean zituztela. Bitartean, gainerakoek erakustaldia egin dute Trianguloan. Bakoitzak bere ordezkaria bilatzen zuen behetik eta agurtu. NOELIA LATABURU



**Akordeoilariak.** Isidro Larrañagaren gidaritzapean, makina bat pieza jo zituzten bidean barrena joanez. Hauspoak luze-luze ireki eta doinu eder askoak jo zituzten. JAIONE ASTIBIA



**Karroza.** Larunbatean saritutako mozorroa, patxadan ibili ziren eta ibilbidearen bi aldeetara zegoen guztiari, goxokiak banatu zizkieten, laguntzaileekin batera. JAIONE ASTIBIA



**Txantxoak.** Hauen jazkerek, besteekin batera, kolorea jarri zieten kalejirari. Hauetako aurpegia ikustea zail samarra suertatu bazen ere, batzuetan agerian gelditzen zitzairen. JAIONE ASTIBIA



**Errementariak.** Eskuetan erremintak izan ordez, danborra jotzeko makilak zituzten, eta burdina maneatzeak ematen duen indarrez, jotzen zuten danborra. NOELIA LATABURU

daren amaieran, berriz, Isidro Larrañagaren akordeoijoleak joan ziren. Guztien atzetik haur jaialdian txantxo txapelketaren irabazleak, karrozaren gainean, gozokiak eta konfetiak banatuz gainera, ikusleen artean. Jende andana bildu zen ume-  
txoak ikustera eta eguraldia lagun izan zuten. Geltokitik abia-

tu ziren eta Trianguloan egin zuten geldialdian, egunerako ikasitako pieza guztiak jo eta dantzatu zituzten ederki asko bertan bildu zen jendetzaren aurrean, Bien bitartean, kantinera guztiak Kultur Etxeko balkoira igo ziren jendea agurtzera  
Ondoren, bere ibilbidea ja-

rraitu zuten eta Aiz-Orratz el-karteraino heldu ziren. Umeek arratsalde bikaina igaro zuten eta baita eurak ikustera hurbildu zirenak ere. Gauean, berriz, helduen danborradak hartu zuten gaztetxoek lekukoa eta herriko kaleetan barrena aritu ziren danbor hotsen ohiartzu-nak zabalduz.

**ASTELENA**  
JATETXEA

- Eguneko menuak
- Menu bereziak
- Bataioak
- Jaunartzeak
- Familiako ospakizunak

Euskal Herria, 4 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 09 96

**beotibar** 500 m<sup>2</sup> komertzialak

Handiena eta espozizio onena elektrogailuetan

Gudari, 7 • TOLOSA • Tel/faxa: 943 65 46 50

TARTALONGI PASAU  
TA  
GUTXI GASTAU

PLAZA ZARRA 10 TOLOSA

**Ezenarro**  
Leiho isolagarriak • PVC •  
Haustura aluminioa •  
Egur arotzgitza

Inauteriak ondo pasa!

San Frantzisko, 26 - behea  
20400 TOLOSA - Tel.: 943 11 85 36  
Faxa. 943 11 84 53

**66**

Bokatak, Pintxoak eta Plater Kombinatuak, ugari

-- 7etan irekita --

**jai zoriotsuak pasa!**

M.J. Iraola, 1 • TOLOSA  
Tel.: 943 67 19 37



TXINPARTAREN 75. URTEMUGA ▶

# Errege kanpaina, pintura, musika, kanta... 75 urtez

Txinparta elkarteak 75 urte bete ditu aurten; kultur eta kirol ekitaldi ugari prestatzen ari da zuzendaritza taldea, urtemuga behar bezala ospatzeko

JOXEMI SAIZAR

**G**izartean eragina izateko» sortu zuten duela 75 urte Txinparta elkar-  
tea, «Tolosaren aldeko hutsu-  
neak betetzeko». Umore Ona  
eta Arrameleterrak peñak ba-  
natu ondoren sortu zuten. Eta  
hori izan da elkartearen ikurra:  
behartsuen aldeko kanpainak,  
Erregeetan adibidez, zahar eta  
gaixo etxeetara opariak eta  
alaitasuna eramanez. Aurtengo  
urtemugan hori kontuan  
izango dute antolatzen ari di-  
ren ekitaldi ugarietan. Gaur  
egun 94 bazkide ditu eta erlo-  
juak bueltak alderantziz emate-  
ten jarraitzen du.

Periko Elosegia lehendakari-  
ak jarri zion izena, sagardoaren  
burbuila gogoratuz eta  
Errementari kaleko 34an  
—gaur egungo 32— kokatu zu-  
ten egoitza.

Aurrerakin batzuk ere badi-  
tuzte. Umore Onak bere *txaranga*  
—musikari pare bat eta per-  
kusiojoleak, jantzia: txaketari  
buelta emanda— 1924an sortu  
zuen. Handik aterako zen  
1928an Polvo y Paja, Tolosako  
Inauterietako lehen txaranga,  
Txinpartako.

## Kontzertu benefikoak

Gizarte lan horretan 1932an  
hasi ziren, Errege kanpainan  
Jesusen Zerbitzariak, Fraisoro



Txinpartakoak 1947ko Asteartitan, erdian Bibiano Larramendi. HITZA

eta Andazarrateko zentroak bi-  
sitatu. Orain, Iurreamendi,  
Euskal Herria plaza eta San  
Cosme y San Damian egoitza-  
tara ere joaten dira. Botikak eta  
opariak ematen zizkieten. Baz-  
kide batek botikak merke lor-  
tzen zituen Pasaiako portuan,  
han egiten zuelako lana. 250  
lote prestatzera iritsi ziren Iur-  
reamendirako. 90 haur zeu-  
den garai batean. Umezurtzak  
bost urte arte Fraisoron egoten  
ziren eta gero Iurreamendira  
pasatzen ziren. Gero gaixoak  
zeuden. Elkartetik aparteko  
batzorde batek antolatzen du  
diru bilketa eta opari banaketa,  
bazkideei eta enpresei eska-  
tuz. Dirua lortzeko Gorritin eta  
elkartean jaialdiak egiten zi-  
tuzten: Donostiako Orfeoia,  
Fanfarre Gaztelubide, Felipe  
Gorriti eskolania, Azpiazu gita-

rrajolea, Ignacio Mokoroa,  
Pepe Azarola, Carmen Ocariz  
eta Segundo Galarza pianojole-  
ak...Iurreamendiko haur par-  
kea, soinua zuen zinema, tele-  
bista —Tolosako bigarrena  
izan zen, 1962an, Izaskungo ja-  
tetxeakoaren ondoren— horrela  
lortu ziren.

Urtero sanjoanetan antola-  
tzen duen pintura erakusketak  
ere bere historia du. 1944ean  
hasi zen. Manolo Ugarte eta  
Isaac Amonarrizek —MIAU si-  
natzen zuten, bien siglak uzta-  
tuz— karikaturekin hasi ziren.  
Gero Felix Yartzak bultzatu zuen  
pintura lehiaketa. Lanagatik  
Madrilen egin zituen urte ba-  
tzuk, baina itzuli zenean berri-  
ro hasi zen erakusketekin.

Javier Bello Portuk eta Felix  
Yartzak bultzatuta, bazkide ba-  
tzuk euskal kanta batzuk eta  
zortzikoa abestu zituzten 1942-  
ko San Joan bezperan. Udalar-  
i gustatu eta errepikatzea eska-  
tu zien. Gaur egun suan man-  
tzentzen da ohitura.

Euskal kulturako goi mailako  
adituen hitzaldi sorta ederra  
ere izan dute Txinpartan.

## Aurtengo ospakizunak

Txinpartaren historian oinarri-  
tuta, ekitaldiz beteriko egita-  
raua ari dira prestatzen aurt-  
tengo urtemugarako. «Ideia  
asko ditugu, baina oraindik de-  
nak zehaztu gabe daude», dio-  
te ahobatez Jose Luis Garmen-  
dia lehendakariak eta German  
Ormazabal eta Ander Leta-  
mendia bazkideek.

Inauterietan, Astelenitan,  
konpartsa aterako dute Gure  
Txokoarekin eta haien koroa  
eta hauen txaranga elkartuko  
dira pieza batzuk eskaintzeko.  
Asteartitan bermut dantzaldia  
izango da eguerdian elkarte-  
an.

Martxoaren 5ean bazkide  
guztiak gogoratzeko meza  
egingo dute Santa Marian.  
Donostiako Orfeoia Mokoroaren  
San Joan Bautistaren meza,  
*Ave Maria* Javier Bello Portu-  
ren omenez eta Aita Madinaren  
*Aita Gurea* abestuko du, Pepe  
Arzelus organojolearekin.

Apirilean, koadrilen arteko  
lehiaketa gastronomikoa eta  
afaria izango da. Maiatzean,  
eskupilota finala dela eta, Xabier  
Euskitzeren hitzaldia pilotaz  
eta bertso saioa antolatu nahi  
dute. Erremonte partidak anto-  
latu nahi dituzte lehen aldiz Be-  
otibarren, maiatzeko ostiral ba-  
tean.

Ekaineko lehen larunbatean,  
hilak 4, elkartearen eguna  
izango da: txaranga, Felix Yaza-  
ren omenezko pintura lehiaketa  
aire librean goizean eta on-  
doren sanjoanetan horien era-  
kusketa. Batela atera ere atera  
nahi dute —bi urtez atera zuten  
Txinpartak—.

Udako atsedenaldiaren on-

## HISTORIA ▶



Harmarria. HITZA

Hauek dira Txinpartaren  
historiako data aipagarri  
batzuk.

**1928.** Polvo y Paja txaranga  
atera zuten lau urte lehenago  
Umore Ona *txaranga* atera  
zutenek.

**1929.** Umore Ona peñak jazz  
taldea konpartsa atera zuen.

**1930.** Txinparta sortu zuten  
azaroaren 23an.

**1932.** Lehen Errege  
kanpaina egin zuten.

**1934.** Jose Maria Molinak  
*Txinparta* kalejira konposatu  
zuen.

**1934.** Sokamuturra  
berreskuratu zuten, 43 urtez  
debehatuta egon ondoren.

**1940** arte egin zuten.

**1942.** San Joan bezperan  
bazkide batzuk euskal kantak  
eta zortzikoa abesten atera  
ziren Javier Bello Porturen  
zuzendaritzapean. Gaur egun  
sutean egiten denaren  
aitzindaria.

**1944.** Lehen pintura eta  
karrikatura lehiaketa.

**1972.** Juan Colmenerok *Ran  
caliente* pieza konposatu eta  
Txinpartari eskaini zion.

**1980.** 50. urtemugan —Gure  
Txokoarekin batera— Inude  
eta Artzairen konpartsan parte  
hartu zuen txaranga.

**2002.** Luis Angel Tarragonak  
*Polvo y Paja* habanera  
konposatu zuten.

doren, azaroan Ander Leta-  
mendia prestatzen ari den libu-  
ruaren aurkezpena, txapelaren  
lehiaketa eta txapelaren ingu-  
ruko erakusketa egin nahi  
dute. Asmo onez beteta daude  
Txinpartako kideak.

argiketariak & igeltseroak  
iturkinak & pintoreak  
arotzak

eskaiolista & dekoratzaileak  
zoruak & leihoak  
altzariak & sukaldeak

**in→ gremioen  
koordinazioa**

Nafarroa etorbidea, 12  
20400 Tolosa  
**Inauteriak ondo pasa!** Tel.: 943 65 36 40

**TOLOSAGASA**

Tolosako energia. Zurea  
Energía de Tolosa. Tu energía

Arostegieta, 18 • TOLOSA  
Tel.: 943 67 53 20 • Faxa: 943 67 55 11

**AINETAKOAK**

Ondo pasa Inauterietan!

Tel.: 943 65 04 63  
Nafarroa Etorbidea, 14  
TOLOSA

**ALDAMA TAPIA S.L.**

ARTEKARITZA • GESTORIA • ASEGUROAK

Kaleberria, 22-behea • Andoain • Tel.: 943 59 44 76 / 943 30 01 67 / Faxa: 943 30 04 17  
atapiandoain@stl. logicontrol.es

Foruen etorb. 7 • Tolosa • Tel.: 943 65 03 75 / 943 65 03 92 / Faxa: 943 65 52 06  
gestoriaaldama@stl. logicontrol.es

**RAU**

Ondo ibili  
Tolosako  
Inauterietan!



GURE TXOKOAREN 75. URTEMUGA ▶

JOXEMI SAIZAR

**A**besbatza eta musikarekin lotura estua du Gure Txokoa elkarteak. Beti-danik izan da abeslari eta kanta ugari bertan. Orfeoia izan zuten. Gero Leidor eta Abeslari Lagunak abesbatzetako partaide ugari elkarteko bazkide ziren. Santa Agedan eta Eguberrietan abesten ateratzen jarraitzen dute. Banda bat ere izan zuten. Gaur egun txistulari bandako kide batzuk bertako bazkide dira.

Musika izango da aurten Gure Txokoa elkartearen 75. urtemugaren ardatzetako bat, baita kirola, jaiak, gastronomia... Horretarako batzorde batzuk sortu dituzte elkartearen. Ekitaldi guztiak elkartearen bertan izango dira gainera.

Apirilaren 15ean denez urtemuga eguna, aste horretan ekitaldi dezente izango dituzte bazkideek eta herritarrek. Egun horretan Paco Arratibel eta Tomas Arriola prestatzen ari diren liburuaren aurkezpena egingo dute. 50. urtemugan aldizkari bat atera zuten, baina orain liburua izango da. Juan Garmendia Larrañaga, Jose Mari Gofñi eta Perico Gomezzen artikuluak izango ditu, elkartearen historia, argazki zaharrak... jasoko ditu lanak.

Kultura batzordeak, musika alorrean, prestatu dituen hiru kontzertuetako bat aste horretan izango da. Garikoitz Mendizabal eta Arozena txistulariek eskainiko dute eta Mikel Aranburu Iruñeko bandako zuzendariak txistuari buruzko hitzaldia emango du. Aste horretan bertan egingo dute elkartearen festa: meza Jesusen Zerbitzarietan —koroak lehen abesten zituen moteteak abestuko ditu—, hamaiketakoak, mus partidak eta afaria beste elkarteak gonbidatuz. Esan behar da festa lehen Pazko igandean egiten zutela, gero hurrengo larunbatera pasatu zuten eta aurten bi aste atzeratuko dute, urtemugarekin bat egiteko.

Jesusen Zerbitzarietako hurreman handia izan du aspaldidanik Gure Txokoak. Haur-



Elkartearen bi peña sortzaileak, Galtzaundi eta Gure Txokoa, Berazubini jokaturako futbol partiduan. HITZA

# Jesusen Zerbitzariak eta abesbatza musika

75 urte bete dituen Gure Txokoa elkartearen bi ikurrak dira; urtemugako ekitaldietan ere presentzia handia izango dute

tzaindegia zenetik urtero laguntza ematen dute. Orain zaharretxe da eta jarraitzen dute laguntza hori ematen.

**Galtzaundi** habanera eta elkarteko martxa hiru ahotsetara, Jose Maria Gonzalez Bastidak moldatuta, askotan abestu izan dute. Aurtengo urtemugarako ere berreskuratu eta ekitaldietan abestuko dute.

Beste bi kontzertuak maiztzean —Iñaki Agirrerren gitarrak kontzertua— eta ekainean —Jesus Mari Garmendia bazkide perkusiojolearena— izango dira.

Bakailao eta ardo zuriaren inguruko jardunaldi batzuk antolatzekotan dira baita ere ekainean: dastaketak, sukaldaritza eskolen arteko lehiaketak, hitzaldiak... Aurten Santio Bideko iparraldeko ardo zuriak hartuko dituzte eta hurrengo urtean, Tolosaren 750. urteurrenean, Santio Bideko hegoaldekoak. Atal honekin jarraituz, udazkenean Davidoff puruen elaborazioaren erakusketa eta

Juan Jose Lapitzen hitzaldia sukaldaritzaz izango dute.

Jaien atalean, Inauteri hauean Astelenitan abesbatza aterako da eta aurten ere 75. urtemuga betetzen duen Txinpartako Polvo y Paja txarangarekin batera habanera batzuk eskainiko dituzte. Asteartitan, lehen Gure Txokoak urte askotan antolatu zuten Sardinaren Lur-ematea berreskuratuko du. Sanjoanetan ateratzen duten eskopetariaren konpainia handitu nahi dute aurten.

Kirol aldetik ere ekitaldi ugari antolatzeko asmoa dute: ekaineko lehen astean —Euskal Bizikletaren Tolosatik aterako da— kirol medikuntzari buruzko hitzaldia; txirindularitzariz mahai-ingurua denboraldiaren amaieran eta mendiko filma eta hitzaldia.

Maiatzean irteera egingo dute Zugarramurdira, garai batean bezala, eta uztailean Zelatunera. Eta urte bukaeran afari berezia egin nahi dute sukaldari ospetsu batek prestatua.



Harmarria. HITZA

**HISTORIA ▶**

- 1924.** Bi peña hasi ziren biltzen: Galtzaundi Pasadizo tabernan eta Gure Txokoa Andia kaleko taberna batean.
- 1926.** Gorosabel eskoletako kantina hasi ziren laguntzen.
- 1927.** Kaldererotan taldea.
- 1929.** *Gure Txokoako izarra* edo *Arrantzaleak* ikuskizuna atera zuten: bost karroza, abesbatza, musika taldea, Orioko arrantzaleak...
- 1930.** Gure Txokoa sortu zuten apirilaren 15ean. Ehun ahotseko orfeoi mistoa.
- 1931.** Gure Txokoa banda atera zuten.
- 1931.** *Inudeak eta Arzaiaik* konpartsa. 1980an errepikatu zuten, 50. urtemugan.
- 1932.** Antonio Elosegi 55eko 1. pisua hartu zuten egoitza. Geroago oraingora joan ziren.
- 1935.** Batela atera zuten sanjoanetan.
- 1940.** Zezenketa benefikoak hasi ziren berriro egiten. 1969 arte iraun zuten.
- 1972.** *Can can* konpartsa atera zuten.
- 1973.** *Bony and Clyde* konpartsa. Gero Baionara eraman zuten, hango elkarte batek eskatuta.
- 1976.** Sardinaren Lur-ematea atera zuten, XIX. mendeko ohitura berreskuratuz. Duela gutxi mantendu da eta aurten berriro aterako dute.
- 1979.** Abesbatza atera zen Tolosako elkartearen arteko lehiaketan.
- 1996.** Berrikuntza lanak egin zituzten egoitza.

**T O L A R G I**  
Tolosako argia. Zurea  
La luz de Tolosa. Tu luz

**INAUTERIAK ONDO PASA!**

Arostegieta, 18 • TOLOSA  
Tel.: 943 67 53 20 • Faxa: 943 67 55 11

**ZYMETA JANTETXEA**  
Olasagasti anai-arrebak  
Agintari, 9 • TOLOSA • Tel.: 943 67 28 78

**Ondo pasa ihauterietan**

Arostegieta, 18 • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 673 533  
www.mmagendia.com • tolosa@mmagendia.com

**'ZURE UMEEN DENDA'**

sehaskak • eguzkitakoak • segurtasun ahulkiak  
zakuak • maindireak • ohe estalkiak

**HAURDUNENTZAKO ARROPA-HAUR MODA 0-2 URTE**  
**ONDO PASA INAUTERIAK!**

San Frantzisko, 39 • TOLOSA • Tel.-Faxa: 943 65 22 38

**MAIXINA** Inauteriak ondo pasa!!

Etxekotesna elektrikoaren konponketa

Laskorain, 18 • TOLOSA • Tel.: 943 65 00 34


**IÑAKI GOIKOETXEA ▶ INAUTERIZALEA**

# «Ohartu gabe, Inauteriak urte guztian gogoan izaten ditut»

Urtez urte, herritarrak eta Tolosako Inauterietara etortzen diren bisitariak txunditzen ditu Goikoetxeak

**EDURNE AYUSO**

Gizon ezaguna da, berak egindako zenbait diseinu lanarengatik, baina, batez ere, Inauterietan mozerrotzeko erakutsi duen trebetasunagatik. Iñaki Goikoetxea diseinatzailea da, berak diseinatu zuen esate baterako Tolosako Cafe Fronton jatetxea. Baina, esandako moduan, Goikoetxea bere mozerroengatik da batez ere ospetsua. Bere mozerroak ez dira nolanhikoak, behin ikusita ez dira ahanzten, zeinek ez ditu gogoan San Frantzisko ibilbideko zuhaitz artean, adarren gainean kateaturik geratu zen hegazkina eta barruan zihohan pilotua? Nor ez zen harritu Cafe Fronton gainean eraiki zuen kanpandorra eta zikoina ikusita? Bada, mozerro hauek eta beste asko pentsatu eta garatu ditu Goikoetxeak. HIRZA Goikoetxearekin hizketan aritu da, 2005erako aukeratu duen mozerroa zein den esanarazteko ahalegin guztiak alferrikoak izan dira...

**Zu tolosarra zara jaiotzez. Oso gazterik hasiko zinen mozerrotzen ezta?**

Bai, egia esan bai. Hamasei urterekin hasi nintzen mozerrotzen. Lehenengo mozerro handia koadrilan egin genuen. Gogoan dudanez bizikleta erraldoi bat eraiki genuen. Dena dela, hasiera batean mozerrotu baino gehiago, karrozeta eta konpartsetan parte hartzen nuen.

**Baina azken urteotan bakarrik mozerrotuta ikusi zaitugu.**

Hala da. Azken zortzi urteotan bakarrik mozerrotu naiz. Bi urte pasa nituen ezer egin gabe, mozerrorik egin gabe, eta bat-batean, bakarrik mozerrotzea bururatu zitzaidan. Itsuen aldeko txartelak saltzen zituen pertsonaia batez mozerrotu nintzen lehenengo aldi hartan.

**Denbora asko eskaintzen al diozu mozerroan pentsatzeari eta hau egiteari?**

Ohartu gabe, Inauteriak urte guztian gogoan izaten ditut. Nahi gabe, gauza askok gogora ekartzen dizkirate Inauteriak. Ez naiz apropos mozerroan pentsatzen egoten, baina bat-batean ideiak sortzen zaizkit. Esate baterako, laz, Errioxatik pasatzen ari nintzela kanpandorre batean zikoina bat ikusi nuen eta horrela sortu zen lazko mozerroa. Hala ere, norma-

**DI-DA BATEAN ▶**

**Inauterietako egun bat?**

Igandea.

**Zein mozerro erreplikatuko zenuke? Bakar bat ere ez.**

**Zertaz mozerrotuko zinateke gustura?** Momentuz aurtengo mozerroa dut bakarrik buruan.


**Kalean ikusitako zein mozerrok eman dizu atentzioa?** Askok, ezin dut bat aukeratu.

**Inauterietako doinu bat?**

Diana.

**Leku bat Inauterietarako?**

Tolosa. Orain arte ez naiz Inauterietan sekula kanpora atera.



Hegazkin batean San Frantzisko ibiltokiko zuhaitzean zintzilik jarri zenean arreta handia lortu zuen. HITZA

lean Gabonak pasatakoan hasten naiz mozerroa prestatzen, baina, aurren, horren goiz direnez, lehenago hasi naiz.

**Diseinatzailea zara. Normalean eraikin barruak diseinatzeko diguzu. Horrek mozerroak egiteko ere lagunduko dizu.**

Bai, egia da, ideia garatzeko lagungarria zait diseinatzailea izatea. Gainera, ogibide honi esker lanbide askotako jendearekin lan egiten dut urte osoan zehar eta mozerroa egiterakoan jende askok laguntzen dit. Mozerroa prestatzeko lan asko egiten dugu, baina oso ondo pasatzen dugu. Lagun hauen laguntzarik gabe ezingo nituzke horrelako mozerroak egin.

**Orain arte, oso mozerro bereziak egin dituzu. Zeintzuk gustatu zaizkizu gehien?**

Oso zaila da bat aukeratzeko. Niri egia esan, denak gustatu zaizkit, baina jendeari gehienbat zikoinarena eta hegazkinarena gustatu zaizkio.

**Normalean jendearengandik urrun samar kokatzen zara, zuhaitzen gainean, kanpandorre batean, ludia irudikatzen zuen bola handi batean gainean... Hala ere jende asko hurbiltzen al zaizu?**

Normalean jendearengandik urrun samar jartzen naiz, baina, hala ere, ikusle asko gerturatzeko zaizkit nagoen lekura. Jendea etortzen zait eta edozer gauza esaten dit, denetarik entzuten dut urte hauetan zehar, denetarik...

**Aurten zertaz mozerrotuko zaren esango al diguzu? Besterik ez bada ere, argibideren bat emango al diguzu?**

Zertaz mozerrotuko naizen ez dizuet esango, noski! Hala ere emango dizkizuet pare bat argibide. Batetik, jendeak nire mozerroa igo eta jaisteko aukera izango duela aurreratzen dizuet. Jendeak zuzenean parte hartzeko modua izango duen lehenengo aldia izango da. Bestetik, ideia, kontatu zidaten txiste baten haririk sortu zela esan behar dizuet.

**Beraz, mozerrotuta ikusi arte itxaron beharko dugu... Zein egunetan eta non aurkituko zaitugu?**

Zaldunitan eta Astearritan mozerrotuko naiz, goiz eta arratsaldean, urtero bezala. Hiru bat orduko egonaldia egingo dut, bai goizean eta baita arratsaldean ere. Non egongo naizen? Bada, leku zehatza ez dizuet esango, baina, Tolosako erdigunean ibiliko naiz segur aski.


**IDEIA**

«Ez naiz apropos mozerroan pentsatzen egoten, baina bat-batean ideiak sortzen zaizkit»

**LAGUNTZA**

«Mozerroa egiterakoan jende askok laguntzen dit; lagun hauen laguntzarik gabe ezingo nuke horrelakorik egin»

**AURTENGOA**

«Aurtengo mozerroa jendeak zuzenean parte hartzeko modua izango duen lehenengo aldia izango da»

**iragarki laburrak ▶**

**Telefonistak.** Harreragileak. Plaza libreak erakunde publikoetarako. Informazioa doan. 943 65 01 93.  
**Ostalaritza.** Sukaldari laguntzaileak, sukaldariak, zerbitzariak. Plaza libreak: eskolak, egoitzak, Eusko

Jauriaritza. 943 65 01 93 telefonoa.  
**Eraikuntza.** Igeltseroak, peoiak. Plaza finkoak Gipuzkoako udalenta Informazioa doan. 943 65 01 93.  
**Gidariak.** Plaza libreak: eskolak, Eusko Jauriaritza, Aldunidia.

Informazioa doan. 943 65 01 93.  
**Haur Hezkuntza.** 1.200 plaza. Sarbidea libre. Informazioa doan. 943 65 01 93.  
**Administrazio laguntzaileak.** Laster sarrerak udal hauetan:

Hernani, Usurbil, Irun, Beasain, Aitzo, Bergara, Zorales, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Informazioa doan 943 65 01 93.  
**Mantenua.** Elektrikariak, iturginak, soldatzaileak, igeltseroak. Plaza

libreak: erakunde publikoak. Informazioa doan. 943 65 01 93.  
**Peoiak,** elektrikariak, iturginak, soldatzaileak, igeltseroak. Plaza libreak erakunde publikoetan. 943 65 01 93.





ARPEGIKO JAIALDIA ▶

# Ezkontza eroa, denon gozagarri

Leidor aretoa toperaino bete zen ostiral gauean Arpegiko 'Boda leal' izenpeko emanaldiaz gozatzeko; musika, antzezpena, esketxak eta dantzak izan ziren gaueko protagonista nagusiak



Ez zen inor falta; familiako partaide guztiak dotore ailegatu ziren Leidorreko eszenatokira. INIGO TERRADILLOS



Maria Isabel ere etorri zen Tolosako Inauterietara eta, bide batez, emanaldia eskaini zuen. INIGO TERRADILLOS

ziren, Leidorreko eskaileratan behera.

Ikuskizuna ez zen ezkontza-  
ren irudikapen honekin amaitu  
baina. Abeslari famatu batzuk  
ere zapaldu zuten eszenatokia.  
Maria Isabel gaztetxo, Che-  
noa, Fary eta Juan y Junior  
abeslariak, besteak beste, bere  
erritmoekin alaitu zuten gaua.  
Bisbal bera ere bertan izan zen  
euskal dantza saioa eskaini-  
tzen. Herriko albisteen berri  
ere eman zuten, Ane Igarbitu-  
ruren gidaturiko albistegian,  
Kepa Keton laguntzaile zuela.  
Tolosako ordezkaria, Arpegiko  
bi partaideren emazteak eta  
berdeak taldeko kide bat Orian  
arrantza praktikatzen izan zi-  
ren esketx haueko protago-  
nistak.

## Aldarrikapenerako tartea

Bide batez, jaialdia aprobetxa-  
tu nahi izan zuten Arpegikoe-  
k aldarrikapenak egiteko, Tolo-  
san pil-pilean dauden bi gaien  
inguruan. Lehenengoan, ge-  
rontologikoa ez ixteko eskatu  
zuten; bigarrengoan, berriz,  
Leidor aretoaren konpoketa lan-  
ak epe motzago batean buru-  
tzeko deia luzatu zuten.

Gau borobila izan zen, beraz,  
ostiralekoa. Jendea ere pozik  
irten zen aretotik. Dena den,  
antzezpena hasi aurretik, ara-  
zoak izan ziren norberari zegokion  
eserlekuak topatzeko eta  
barrura sartzeko.

Hasi bezala amaitu zuten  
saioa, musikarekin, hain zuten  
ere. Abba taldea irudikatu zu-  
ten gauari bukaera borobila  
emateko. Bien bitartean, Arpe-  
gikoak hasi dira dagoeneko  
datorren urteko jaialdirako  
ideiak pentsatzen; baina urte-  
betez itxaron beharko dute  
inauterizaleek ikuskizunaz go-  
zatzeko.

## NOELIA LATABURU

Ostiral Mehea Arpegiren egu-  
na bilakatu da, urtero bere  
emanaldiak pizten duen ikus-  
mina dela eta, eta nahitaezko  
tartea lortu du Tolosako Inau-  
terietako agendan.

Herenegun ere Leidor aretoa  
bete zuten eta «sarrerarik ez»  
kartela ipini behar izan zuten  
egun batzuk lehenago. Giro po-  
lita sortu zen bertaratu zirenen  
artean eta algara izan zen na-  
gusi *Boda leal* izeneko ikuski-  
zunak iraun zuen bi orduetan  
zehar. Aipatu ezkontzaren in-  
guruan antolatatu zuten, beraz,  
jaialdia. Aita, ama, lehengusu,  
ahizpa... Han ziren denak eta  
banan-bana Borboien familia-  
ren partaide guztiak ailegatu

**YOSU THERMIK**  
POLIURETANO AROZTEGIA, PVC, ALUMINIOA  
LEIHOAK, PERTSIANAK eta ARMAIRUAK NEURRIRA  
Rondilla kalea, 14 bis. Tel eta Faxe: 943 67 34 59  
20400 TOLOSA

**Café Iruña**  
Pinxoak eta plater konbinatuak  
Gorriti plaza, z/g•Tolosa•Tel: 943 01 65 65

**TXIKI-ZAHAR TASKA**  
Etorri gurera inauteriak ospatzera!  
Nagusia, 28 • TOLOSA • Telf.: 943 67 60 40

**THE FACTORY**  
Moda  
Korreo, 11 - TOLOSA  
Tel.: 943 67 58 93

**Galai**  
ILEA PARRILLA  
inauteriak ondo pasa!  
Korreo, 11 (galeria)-TOLOSA-Tel.: 943 67 29 05

ALDIKARIAK eta PRENTSA  
**ROSS**  
LIBURUDENDA  
Tel.: 943 65 14 73  
S.Frantzisko • TOLOSA

Nafarroa etorb, 11 • Tel.: 943 65 12 64  
**OSKI**  
OINETAKOAK • JANTZIAK  
TOLOSA

Emeterio Arrese, 5 • Tel.: 943 65 56 21  
**OSKI**  
GAZTEA

**LAN ESKAINTZA: BILTEGIZAINA**  
Tolosa inguruan kokaturiko enpresak biltegizaina behar du  
**Eskatzen da:**  
Gai mekanikoetan jakinduria minimoa (planoak interpretatzeko gai izatea)  
Fenwich-a erabiltzen jakitea • Gida baimena (B) • Ikasketa ertainak  
Pertsona ordenatua eta txukuna • Lanerako gogoia  
Interesatuak bidali kurrikuluma-Villabonako 86 posta kutxatilara



PRESTAKETAK ▶

# Inauterizaleen topalekua da El kilo oihal denda ezaguna

Edorta Jauregik, El kilo oihal dendako semeak, inauterizale askori laguntzen dio mozorroak egiterakoan; Inauteriak izaten dira urteko sasoirik jendetsuenak



Edorta Jauregi, El kilo dendako semea. EDURNE AYUSO

## EDURNE AYUSO

Inauterietan mozorroa da erregea eta mozorrotzerakoan berriz, Tolosako El kilo oihaldenda izan ohi da inauterizaleen Meca. Umoretsu eta harretatu egon ohi da El Kilo dendako semea. Mozorroak nola egin, zein tela aukeratu, nola josi... denetarik informazioa ematen du eta beharrezkoa bada, modelo lanak ere egiten ditu Edorta Jauregik.

El kilo denda ez da gaur goizekoa, 1973an ireki zuten Jauregiren gurasoek. Familia arteko negozioa dela esan liteke, aita-semeak baitira denda gobernatzen dutenak. Inauterietan ordea, «ama eta izeben laguntza ere» behar izaten dute, Tolosaldeko jende asko joaten baita telak erosi eta gomendio eske.

Edorta Jauregik HITZARI azaldu dionez («denbora libreko taldeak eta ikastetxe handiak dira bezero ohikoan»). Talde hauek, urtero-urtero jotzen dute eurengana. Gaur egun, «ideia zehatz bat izaten dute», zertaz mozorrotu nahi duten eta nola mozorrotuko diren erabakita izaten dute. Jauregik azaldu duenez «oihal zehatzak eskatzen dituzte, badakite zein tela erabili». Normalean, mozorroaren patrioiak edo ma-

rrazkiak ere erabakita izaten dituzte ikastetxe eta aisialiko taldeek. Hauetan oinarrituz, jostunek, beharrezkak diren mozorro guztiak josten dituzte. Aurten esate baterako, Tolosaldeko bost jostunen laguntza behar izan omen dute eta «zenbait urtetan Tolosaldekan pora ere bilatu behar» izan omen dituzte jostunak.

Urtero badira asko saltzen diren oihalak. Esate baterako asko saltzen omen da iledu oihala, garai honetako hotzak ba omen du eragina.

Edorta Jauregik, azarorako bazekien egun hauetan Tolosako kaleetan zein mozorro errepikatuko ziren gehien. Izan ere, «Txerreroak, Marijaia, Donostiako Danborrada, Gal-tzaundi, San Ferminetako jantziak eta Zeledon» esate baterako. El kilon sortu dituzten mozorroak izan dira.

## Telebistaren eragina

Edorta Jauregik nabarmendu duenez, telebista eta zinemaren eragina Inauterietan era somatzen da. «Urtean zehar telebista eta zinema aretoetan ikusten diren pertsonaiak mozorro bihurtzen dira askotan. Haurren artean izaten da nabarmena. Aurten adibidez, Harry Potter, *Los Increíbles* eta

## EDORTA JAUREGI DENDARIA

«Jendeak betiko txilaba gero eta gutxiagotan jantzen du; eta erabiltzekotan laburragoa izaten da»

«Balkoietako oihalek arrakasta handia dute; Udalak jartzea eskatu zuenetik horrelako asko saltzen ditugu»

Hirukien mozorroak ikusiko dira». Komunikabideen eragina helduen artean ere eraginkorra omen da, «Inauteri hauetan adibidez, ETB 2-ko *Vaya Semanita* saioiko *El pelanas* pertsonaiaren mozorroa egiteko eskatu digu batek baino gehiagok».

Mozorro gero eta gehiago ikusten da, modan daude ez da gauza bera geratzen ordea aspaldiko txilabekin. Jauregiren hitzetan «jendeak gaur egun nahiago du disfraz bat jantzea. Txilaba gero eta gutxiago erabiltzen da. Txilaba jantzekotan, laburragoak eta txanodunak erabiltzen dira».

Txilabak modaz pasa diren

einean, balkoietako apaingarriek gora egin omen dute. «Tolosako Udalak balkoietan oihalak jartzea eskatu zuenetik, koloredun oihal biziak gero eta gehiago saltzen dira». Gauza nabaria da hori, Tolosako kaleak gero eta apainduagoak ikusten baititugu urteak pasa ahala.

Betiko txilabek gain, urtero izaten dira mozorro originalak. Aurtengoan artean («aukeratzea oso zaila») omen da. Jauregiri mozorro asko gustatu zaizkio, baina, batzuk aipatu ditu bereziki: «Aurtengoan artean, oso originala iruditu zait ardo zahatuz mozorrotu behar den taldearen ideia. Gorputza zahatoaren larru kolorez eta buruan berriz, zahatoek izaten duten moduan, txapela baten modukoa eramango dute. Beste talde bat hamsterrez mozorrotuko da, gurpil handi bat eta guzti eramango dute eurekin. Hau ere oso ideia polita iruditu zait».

Edorta Jauregik ba omen du mozorrotzeko ohitura, baina, aurtengo Inauteriak ez omen ditu Tolosan pasako, ez da mozorrotuko. Haur txiki bat dute eta festa usaina urrutitik usainduta konformatuko dira. Datoren artean ordea, lanerako aitzakia izateaz gain, festarako ere izango dira Inauteriak.

## TELEFONOAK ▶

### LARRIALDIAK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 69 24 23

**Berastegi-Elduain.** 68 33 61

**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34

**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411

**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

### Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

### Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

## GARRIAOK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

## KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Tipi ttapa ald.: 948 631888

## EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur.** Ugarte, M.T. Euskal Herria 46 (Ibarra), 943 67 32 74

Gimeno, A. Elbarren 52 (Leitza).

112

## TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.

tolosaldean\_publici@tolosaldeko hitza.info

**Tolosa.** 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko hitza.info

**Villabona-Aizt.** 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info

**Anoetaidea.** 687 41 00 22

anoetaidea@tolosaldeko hitza.info

**Ibarraldea.** 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko hitza.info

**Alegialdea.** 687 41 00 34.

alegaldea@tolosaldeko hitza.info

**Leitzaidea.** 687 41 01 18.

leitzaidea@tolosaldeko hitza.info

## iragarki laburrak ▶

### SALGAI

**Autoa.** Seat Ibiza salgai. 1.9

TDI. 669 01 32 94.

**Ordenagailuak.** Lau Imac 9.2

eta 3 PC GenuineIntel (128 HB)

salgai, oso merke. Deitu 943 46

71 81.



TXOSNAK ▶

# Txosnaguneak ekitaldi eta kontzertu ugari eskaintzen du

Kokapen berria du aurten, Artxiboaren atzealdean; barra luze bakarrean lau talde ari dira lanean karparen azpian



Txosnagunea Artxiboaren atzealdean dago kokatuta aurten, karpa batean babestuta. J.SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Ostegun Gizenean ireki zuten txosnagunea aurtengo kokapen berria: Artxiboaren atzealdean. Azken urteotan Euskal Herria plazan izan ondoren, aurten Udalak gune horri atsedena ematea eta barrakak Geltokian eta txosnak Artxiboan jartzea erabaki du, urtero lekuz txandaturaz.

Lau talde ari dira aurten txosna bakarrean, karpa estali batean, eguraldiz hotzaz babesteko: Iratzki kulturazindun elkarta, Tolosako gazteak, Bilgune Feminista eta Ikasle Abertzaleak.

Lehiaketa, kontzertu eta ekitaldi ugari antolatuta dituzte txosnagunea girotzeko. Ostegun Gizeneko txistorradaren eta irrintzi lehiaketaren ondoren, Ostiral Mehean izan ziren ekitaldi gehienak: graffiti lehiaketa, sagardo dastaketa, afari herrikoa, kontzertua eta objektuak bilatzeko lehiaketa. Batez ere kontzertuak piztu zuten ikusmin handiena. Senaz, Izeba Pilarren ilobak eta Kudai taldeak arduratu ziren musikaz martxa jartzeko. Atzo haurren eguna izan zuten eta bertso lehiaketa izan zen.

Gaurtik aurrera ere izango da giroa txosnagunean. Gaur koadrilen arteko moztorro lehiaketa izango da, bihar garagardo lehiaketa eta etzi indar lehiaketa. Hiru lehiaketa horiek gaurdian hasiko dira eta guztietan sariak izango dira. Herritar guztiak animatu nahi ditu txosna batzordeak.

## Txosnagunea bizirik

Ohar hau kaleratu du txosna batzordeak: «Ez daukagu leku finkorik, ez dugu diru etekinik ateratzen, diru laguntzak murriztu dizkigute...». Agian batzuei ezagunak egingo zaizkizue esaldi hauek, eta harritu ere egingo zineten Tolosan kalean hau irakurtzean. Zer dela eta daude pankarta hauek?

Ez daukagu leku finkorik: urteetan mugitu gaituzte toki batetik bestera, eta jada Euskal Herria plazan toki finkoa genuela uste genuenean berri aldatu digute lekua Alhondiga plazara erdigunetik urrunduz.

Diru laguntzak murriztu dizkigute: Udalak urtero geure egitaraua prestatzeko diru laguntzatxo bat eman izan digu, horrela txosnagunea festagune izateko geure helburua

betetzen lagunduz. Aurten ordea Udalak azpiegitura gastuak nahikoak direla argudiatuz laguntza hori ere kendu egin digu.

Ez dugu diru etekinik ateratzen: nola aterako dugu ba? Alde batetik Inauterietako hotza, eguraldi txarra, eta bestetik txosnagunea indartzeko Udalaren borondate eza ditugu aurka.

Hala ere ilusio osoz ekin diogu lanari txosnak indartzeko ahaleginean, karpa itxi bat prestatu dugu hotz eta euriaz babesteko, eta egitarau xume baina erakargarri bat ere prestatu dugu zuek denontzat. Inauteriek txosnak merezi dituztela uste dugu, eta oztopoak eta oztopo denon artean mantenduko ditugu bizirik, zeuk ere egin dezakezu zeurea, ekin poteoari! ◀

FUTBOLA ▶

## Gol goiztiar batez irabazi dio Tolosak Touring-i

Azken urteotan ez zuen inoiz irabazi Inauterietan; Lasak lortu zuen gola

J.SAIZAR

Azken urteotako ohitura hautsiz, Tolosak Inauterietan jokatutako partidua irabazi egin zuen atzo Berazubín Errenterietan Touring aurka 1-0.

Jaien ondorioaren beldurra zuten, baina 5. minutuan lortu zuen Lasak gola. Handik aurrera larri ibili ziren tolosarrak. Lehen zatian errenterietarrak mendean hartu zituzten. 11. minutuan Lasa bakarrik gelditu zen atezainaren aurrean, baina ez zuen gola sartu. 30. minutuan Orueri penalti egin zioten, baina epaileak ez zuen seinatu. Beste batean langan jo zuen baloiak.

Bigarren zatian berdintsuago aritu ziren bi taldeak. 75. minutuan Touringeko Nieves bidali zuen epaileak, bigarren txartel horiarekin.

Tolosak talde hau zelairatu zuen: Apeztexea, Aierbe, Jon, Aimar, Errasti, Orue, Romeo, Zuloaga (Garagarza 65m), Lasa (Cristian 74m), Blanco (Prados 65m) eta Elola (Aranguren 84m). Garagarzak txartel horia ikusi zuen.

Emaitza honi esker, Tolosa lidergoan mantentzen da. Tolosarrangandik puntu batera zegoen EHU berriz, gaur jokatuko du.

Hurrengo astean Aretxabaletan jokatuko du Tolosak. Ea emaitza ona lortu eta sailkapeneko lehen postua mantentzen duen.

AZOKA ▶

## Inauteri giroko azoka izan zen atzoko goiz freskoan

Izotzak ez die kalte handirik egin barazkiei; zuhaitz asko zeuden salgai

PABLO ALBERDI

Inauteri giroa nabaritu zen atzo goizean azokan, negu honetako goiz hotzenetakoan. Alde Zaharreko etxeetako Inauteri dekorazioak festa giroa jarri zion goiz hotzari. Erosleak —ohiko goiztiarrak izan ezik— berandu samar agertu ziren salmahaletara. Zerkausia eguerdian animatu zen benetan.

Izotzak produktuetan kalte handirik ez duela dirudi. Neguko barazki eskaintza aparta izan zen. Temperatura baxuak ahoantatu eta prezioak mantentzen dituzte. Neguetan babestutako barazkiak ikus ahal izan ziren.

Zuhaitz eta frutabolen merkaturia ere aipatu behar da bereziki. Eskaintza zabala izan zen Atadi kalean, espezieak landatzeko garaia dela aprobetxatuz.

### ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
<b>Berdura plaza</b>		
Pinu insignis	0,15	-
Abeto Douglas	0,30	-
Porru	2,40	-
Perrejila	0,05	-

<b>Bertako produktuk</b>		
Oilaskoa (3 aste)	1,50	-
Ahatea	2,50	-
Gaztaina	2,00	-
Errezil sagarra	2,00	5,00

<b>Produktu ekologikoak</b>		
Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00
Babarrun zuria	6,00	-

**TOLARE-SAGARDOTEGIA**

**SARASOLA**

Larunbata eta igandetan eguerdian irekita

**TRIKITILARI ETA BERTSOLARIAK**

Jatorrizko Sagardoa

Sagardotegia - ASTEASU  
Tel.: 943 69 02 83

Zumalkardi Baserria - ANOETA  
Tel.: 943 65 26 22

Inauteriak ondo pasa!

**Laiier**

TABERNA  
GOSARIK  
ETA MUSIKA ONA

Arostegieta • TOLOSA • 943 67 51 19

**Berezi**

44-64  
NEURRI BEREZIAK

ondo pasa inauteriak!

Herreros kalea, 3- TOLOSA  
Tel.: 943 67 49 65

**Villanueva, S.L.**

**BANAKETAK**

**KELER**

**INAUTERI ON!**

Okoio Industrialdea, 27  
20481 BELAUNTZA  
Tel: 943 87 11 27

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko otsailaren 6a, igandea ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Aizakosketa, Adura, Abotzu, Alegia, Alkiza, Alzo, Amerieta, Aroeta, Balaran, Beasanta, Berastegi, Edoain, Herrialde, Ibarra, Itxaspegi, Iruia, Larrin, Leizorua, Lizartza, Oteiza, Tolosa, Vilabona, Zuzuki  
besteriak: Leizaldeko Euskara Batzordea

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

Eusko  
Jaurjaritza.  
Kultura Saila

GAURKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

9

hotzena

7

BIHARKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA  
ARALAREN



Guardetxe: bai

Albi: bai

Pagomari: bai

Igaratza: bai

HITZA-KO BEZEROEN  
ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak, harpide egiteko...)

943

30 43 46

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Ikaztegieta.** Martxoaren 5 eta 6rako Candanchura eskiatzera joateko irteera. Izen-ematea udaltxean hilaren 11 arte.

### INAUTERIAK

**Tolosa.** Diana, Tolosako Musika Bandarekin 8:00etan; herriko txistulari bandak ohiturazko ibilbidea eginez *Inauterietako zortzikoa* joko du eta Txarangen irteera, 10:00etan; Plaza Zaharrean eta Solana kalean, sokamuturra 10:30ean; karroza eta konpartsen irteera 11:30ean; herriko txistulari bandak *Idiarena* pieza joz egingo du ohiturazko ibilbidea 15:45ean; kalejira Alcoyano, Aiz-Orratz eta Sukalde txarangekin, Plaza Zaharretik zezen-plazaraino 16:00etan; zezenak zezen-plazan; txarangak eta txistulariak ariko dira ikuskizuna alaitzen 16:30ean; ondoren, kalejira; dantzaldia Plaza Berrian, Alcoyano, Aiz-Orratz eta Sukalde txarangekin 19:00etan; Plaza Berrian disko festa eta Incansables eta Oriako txarangak kalez kale irtengo dira 23:30ean.  
**Tolosa.** Txosnagunean, egunez kale animazioa; Koadrilen arteko mozorro lehiaketa 24:00etan.

## GORA ETA BEHERA ▶ IMANOL GARCIA



## Haurren partaidetza handia

29. urtea da haurrak danbor hotsez betetzen dituztela kaleak Inauterietan. Esan daiteke errotuta dagoen ekitaldia dela. Haurrek sekulako ahalegina egiten dute musikari ondo jarraitu eta guztia armonizatuta entzun dedin. Izan ere, partaidetza handia izaten da ekitaldian eta txalotzekoa haur guztien eginahala.

JAIONE ASTIBIA

## Asmatu zein den kanpotarra

Urtero berdin. Ez dute hutsik egiten. Tolosako Inauterietako larunbatean, Zaldunita bezperan, beti ikusten da norbait moztortuta, eta noski, segituan ondokoari keinua egin eta «kanpotarra» esaten dugu moztortuta dagoena seinalatzu. Halere, ezin izan oso zorrotzak beraiekin, Inauterietan moztortu egiten baita normalean. Ohiturak ikasiko dituzte! JAIONE ASTIBIA

## ZORION AGURRAK ▶

Urtebetetzea, ezkontza, urrezko etzeiak... hemen argitaratzeko etorri HITZAren egoitzara; ekarri argazkia



### URTE ASKOAN

Soiartze Goñi

Peñagarikano (11 urte).

Xenperoko neska politenari. Zorionak eta muxu handi bat, aitabxo, amabxo eta lehengusu Eñauten partetik.

## AGUSTIN-ENEA

JATETXEA



Gora  
Inauteriak!

Euskal Herria plaza, 6 • TOLOSA • Tel.: 943 65 10 59


**LAB**  
Langile Abertzaleen  
Batzordeak

Langile Abertzaleen  
Batzordeak

*Euskal Herrian bizi eta lan  
bertan erabaki*

*inauteriak ondo pasa!*

Gorosabel 29,1. • Tel.: 943 67 00 26 • 20.400 TOLOSA



Inauterietako egitaraua  
Inauterietako argazki bilduma...

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

Zure argazkiak bidaliz gero,  
gure web orrian azalduko dira  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

